

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Andres Ormazabal Izeta

*Donostia,
Gipuzkoa
(1916)*

Aurkibidea



Biografia



Añorgatxikin jaio zen. Zazpi senide ziren. Ama Errezilgoa zuten, eta aita urnietarra; Rezola lantegian egiten zuten lana biek, zakuekin. Aitak aroztegi txiki bat ere bazuen. Añorgako eskola publikoetan ibili zen Andres, 15 urte arte; dantzaria ere bazen, auzoko dantza taldean. Gero Antiguako zurgindegi batean hasi zen lanean. Hantxe zebilen gerra hasi zenean. Ihesi joan zen anaiarekin, Bidaniko izeba-osabengana. Gerra ondoren Rezola lantegian egin zituen arotz lanak, erretiroa hartu arte. [Fulgentzia Ezama](#) errezildarrarekin ezkondu zen.

Zintak

DON-097

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-25
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Añorga txiki nolakoa zen

- **Erref:** DON-097/002
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:00:38. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Zaku lantegia zegoen Añorga Txikin, eta aurretik barriketan eramaten zuten porlana. Bi etxe bakarrik zeuden, eta sagastiak. Inguruan, baserriak.

2. Aita, Filipinetan gerran

- **Erref:** DON-097/004

- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:04:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Zazpi senide ziren. Aita Urnietakoa zen, eta Filipinetan ibili zen gerran. Hilabete pasatu zuten itsasoan, bueltan. Rezolan egiten zuen lana aitak, baita amak, bi arrebak eta lau anaiak ere. Mutilak arotz lanetan ibiltzen ziren. Ama zakuak garbitzen aritzen zen; Errezilgoa zen.

3. Rezola lantegiko etxeetan jaioa

- **Erref:** DON-097/005
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:04:49. **Bukatu:** 00:06:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Ama neskame egon zen Lasarten. Aita Argentinara eraman nahi zuten familiakoek, baina ordurako nobioak ziren, eta ez zen joan. Añorga Txikira joan ziren bizitzera, Rezolak langileentzat egindako etxeetara. Giroa erdalduna zen.</p>

Transkripzioa

-Nexkame zeola, urte askotan, Lasarten, ta hori in zun, ta geo gureana, gure aita zan gaztena, [...] a la Argentina, ta etorri zian handik, hara eramatea, ta ez zun nahi jun, nobiyo zan ta, ta ama ez zun nahi jun, ta hemen geatu zan. Ta geo zeon, neskame eondu zan, meikukin Lasarten.

-Nexkame.

-Eta, nolatan etorri zian ba hona, Añorga Txikira, lanera?

-Karo, honea fabrika, ta hemen jaiyo in giñan, hemen zeatu giñan ta, danak.

-Eta hemen hauek etxe, zuk esan dezun bi etxiak ze ziRan, fabrikaren etxiak zian?

-Langilliak!

-Langillienak?

-Langillienak, etxiak zian fabrikanak.

-Eta nolakuak ziran etxe hoiek, oso haundiyak ziran ala...?

-Bai, hemenguak bai haundiya zan baiña... hemengua, hamabi famili. Ta han sei, bestian, etxe hoitan.

-Eta familiyak nunguak ziñaten, zuek...?

-[...] hemen jende kastillanua asko zan, fabrikan etortzen zian lanea ta, kanpotik-eta,

-Eta, kalia-eta, ze giro zeon, euskeraz hitz egiten zan, ala...?

-Erderaz dana!

-Keba, erderaz dana, dana erderaz.

-Dana erderaz?

-Eskolan ta dana, dana erderaz.
-Dana erderaz, betidanik.

4. 16 urterekin ebanisterian lanean

- **Erref:** DON-097/006
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:06:28. **Bukatu:** 00:07:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

<p>Zazpi bat urterekin hasi zen eskolan, 15 arte edo. 16 urterekin Antiguan hasi zen lanean, ebanisteria batean. Gerra ondoren, Añorgan ibili zen 37 urtean.</p>

Transkripzioa

-Ta zu zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?
-Ni, zortzikin o, uste det, zazpi-zortzi. [...] hamabostak arte, hamabostekin ya, kanpoa. Geo 16kin, hasi nitzan lanian, ta bitartian juten nitzan lanea horrea, baserri horta. [...] ta hamahiru zea, hamahiru urtekin hasi nitzan lanian, Antiguan, ebanisteria baten, han pasa nitun hamabi urte, ebanisteria. Geo etorri zan gerra, hua pasata geo sartu nitzan hemen, Añorgan, ta hemen in det lanian hogeita hamazazpi, treinta y siete, urte. Danian, danian in det 49 urte, lanian, cuarenta y nueve.
-Ez da gutxi. Eta Rezolanian in zendun lana hemen?
-Bai.

5. Eskolan, mutilak eta neskak aparte

- **Erref:** DON-097/008
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:08:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Salvador Polina zen maisua, eskola publikoetan. Gogorra zen. Aparte egoten ziren neska-mutilak. 20 bat mutil ziren.</p>

Transkripzioa

-Bazeon eskola publikuak-edo...?
-Publikua bai, ayuntamientokua.
-Eta horra, horra juten ziñeten?
-Bai.
-Eta, zein zan maixua?
-Maixua zan, Salvador, Polonia, Polina.
-Paulina?
-Salvador Polina.
-Maixuan izena.
-Maixuan izena, maixuan izena.

-Eta, maixu ona zan, ala...?
-Ba [...]
-Gogorra? Eskua ariña?
-Bai, jode. Harek ematen zun, zuk jarri eskua hola ta iten bazenun hola, ordun jotzen zun buruan.
-A bai? Eta zuek, gelan ze egoten ziñeten, neskak eta mutillak batera? Ala mutillak bakarrik?
-Aparte, aparte.
-Aparte?
-Aparte. Hor dauzkat oandik [...]
-Baiña ez dao martxan oain, ez?
-Hutsik do aspaldi.
-Eta, zuek mutillak bakarrik orduan ta asko, asko ziñeten, mutil asko?
-Bai, hogein bat o hogeita bost bai.

6. Eskolako kontuak

- **Erref:** DON-097/010
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:09:24. **Bukatu:** 00:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan zer ikasten zuten. Pizarratxoa. Adin askotakoak zeuden. Baserritar asko zegoen gelan. Futbolean ibiltzen ziren.</p>

Transkripzioa

-Eta, zuek ze ikasten zenuten, eskolan?
-Pues sumar, restar ta multiplicar, ta dividir. Hoi in ezkeo, libre, geo problema batzuk.
-Eta ze izaten zenuten, pizarriña, idazteko, ala?
-Bai, tablerua.
-Tablerua?
-Pizarriña geo're bai, txiki bat baiño, tableruan'e bai. Geo maixuak iten zun ba [...] txandaka pues atea tablero hori ta, han, problemak atea o...
-Eta, danak ez ziñaten edade batekuak izango?
-Ez.
-Nahastuta?
-Nahastuta, asko, asko nahastuta.
-Eta esan dezu, baserrietatik-eta, asko etortzen zirala ingurutik?
-[...]
-Eta zeintzuk izaten zian zuen jolasak? Eskolatik irtendakuan?
-Hemen? Fubolian, ordun'e bai, fubolian.
-Fubolian?
-Eta pelotarik-eta bazenuten?
-Bai frontoia'e bai txiki bat baiño, gehio fubolea.
-Eta ze, baloia ta?
-Baloia bai bai, baloia ona.
-Ona?

7. Dantzari txiki ibilia, gerra aurretik

- **Erref:** DON-097/011
- **Iraupena:** 0:04:47. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:15:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Dantzari txiki ere ibili zen umetan, gerra arte. Ezpata dantzari. Irakasleak. Iruñeko Gayarre antzokian egin zuten dantza 1935ean; autobusa, aldapa ezin igo. Ikurrina atera ala ez, eztabaidan aritu ziren.

8. Gerra aurean ere erdaraz

- **Erref:** DON-097/013
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:17:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Elizan kantatzen ere ibili zen. Kredoa latinez daki oraindik. Elizan ikasten zuten dotrina, Don Agustinekin, erdaraz. Maisua errepublikanoa zen. Dena erdaraz egiten zuten eskolan eta kalean.</p>

Transkripzioa

-Ibilli nitzan, han, (...) gero hamasei urtekin hasi nitzan lanian ta utzi in nun. Ni akordatze(n) naiz uaindik kredua, eh, burutik, kredua, elizakua, hoi zer da, latinez? Uaindikan akordatze(n) naiz.

-Latinez? Ikasi zenun?

-Bai. Kredua.

-Dotriña ze ikaste(n) zenuten, elizan ala eskolan?

-Elizan, elizan.

-Elizan? Eta zein zan orduko apaiza?

-Don Agustin, baiño apellidua ez (...) akordatzen.

-Eta euskalduna zan?

-Bai euskalduna zan.

-Euskeraz ikaste(n) zenuten dotriña?

-Erderaz, erderaz.

-Erderaz hori're?

-Dana erderaz.

-Dana erderaz?

-Ordun zan dana erderaz.

-Eta hor eh, zu gogoratuko zea, republika etorri zanian, hor aldaketa batzuk-eta egon ziran, ezta? Gogoratzen dezu? Republika etorri zanian?

-Ni bai, akordatze(n) naiz, hemen bertan maixua hala zan, republikanua, zeon erretatua (...) paretan, ta (...) haste(n) giñan: "¡Hijos míos, venid conmigo, viva la república! ¡Que viva la república!" Hartu zun kuadrúa ta tira, bota zun lurrea ta... Hoi akordatze(n) naiz.

-Hori maixuak?

-Maixuak, bai.
-Ta nungua zan maixua?
-Hemengua.
-Hemengua? Bertakua zan?
-Hemengua zan.
-Baiña euskalduna?
-Ez, gutxi bueno zeoze itte(n) zun baiña gutxi, gutxi ite(n) zun, ni bezela
igual, gutxiyo.
-Eta jolas-etxian-eta euskeraz ez zan eiten, garai hartan?
-Jolastu?
-Jolas-etxian? Euskeraz eta, dantza-ta ite(n) zenutenian hor euskeraz...?
-Ez, ez. Erderaz.
-Hori're erderaz?
-Gu geuk erderaz, dana erderaz.

9. Babarrun bila Nafarroara, bizikletan

- **Erref:** DON-097/017
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:19:46. **Bukatu:** 00:21:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Bizikletan asko ibiltzen zen. 1941ean, hiru lagun babarrun bila joan ziren Nafarroara. Lekunberrin bazkaldu zuten, eta bueltan erori egin zen. Balnearioan egin zioten kura, eta bost duro kobratu! Klabikula hautsia zuen.

10. Meza ostean tailerrera aitarekin

- **Erref:** DON-097/019
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:22:34. **Bukatu:** 00:24:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Umetatik lanean. Zazpi urterekin hasi zen aitarekin tailerrean, bost eta erdietako mezetara joan ondoren. Armairuak, aulkiak, jergoiak konpondu... denetik egiten zuten. Pinua.

11. Agote ebanisteria

- **Erref:** DON-097/021
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:24:49. **Bukatu:** 00:27:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Escolta Real kalean zegoen Agote ebanisteria. Jangelak, logelak... haritza, intxaurra. Eskuz nola txapeatzen den. Zazpi lagun zebiltzan han. Gero, Rezolan denetik egiten zuen.

12. Gerra etortzean hildakoak

- **Erref:** DON-097/025
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:29:24. **Bukatu:** 00:32:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerra nola hasi zen, Añorgako festetan. Errekalden patruila bat zegoen, eta neska bat hil zuten. Hildakoak ere ikusi zituzten. Irubiden ere bai, beste bat. Galarretan asko fusilatu zituzten.

13. Donostiatik Errezil aldera

- **Erref:** DON-097/027
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:32:52. **Bukatu:** 00:35:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Nazionalak sartu arte, ez zuten lanik egin. Nagusiek alde egin zuten. Mendira joaten ziren, aireplanoak ikustera. Nazionalak arrimatzen hasi zirenean, Errezil aldera joan ziren anaia eta biak. Zarautzen atera zuten salbokonduktoa.

14. Bidanian nazionalak sartu zirenean, komeriak

- **Erref:** DON-097/028
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:35:42. **Bukatu:** 00:39:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Nazionalak Bidanira nola sartu ziren. Ezkutatu egin ziren. Erreketeak baserrira berriro, miaztera. Osabak ukatu egin zuen inor zuenik ezkutatuta. Ez zituzten topatu, baina familia arriskuan jartzen ari ziren, eta mendira joan ziren lanera.

15. Mendian ezkutatuta, eta gero buelta Donostiara

- **Erref:** DON-097/029
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:39:56. **Bukatu:** 00:43:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Mendian ezkutatuta zeudela, mando pila bat ikusi zituzten, kargatuta. Balak ziztuka. Osaba joan zen esatera ez joateko etxera. Bonbak nola bota zituen aireplano batek Errezilen. Uzkudun boxeolaria falangista jantzita ikusi zuen. Donostiara bueltatu ziren, gauetz.

16. Antiguako ebanisteriara berriro

- **Erref:** DON-097/030
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:43:24. **Bukatu:** 00:46:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Ebanisteriara joan zen gerra ondoren. Lankide anarkistaren bila joan ziren, eta eraman egin zuten. Kartzelara sartu zuten. Asko fusilatu zituzten. Bueltan, lanik ez zuten askok. Nagusia gordeta egon zen, Luis Leviña, anarkista. Nazionalistak elizak zaintzen egon ziren.

17. Umetan, Etxeluze baserrian laguntzen

- **Erref:** DON-097/034
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:47:45. **Bukatu:** 00:48:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Etxeluze baserrian egon zen lanean, umetan. Sagarrak bildu, metak egin, segan... Sagardoa egiten zuten. Denbora pasa joaten zen, baina beti ekartzen zuen zerbait.

18. Añorgako festak eta Hernaniko dantzaldiak

- **Erref:** DON-097/035
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:48:35. **Bukatu:** 00:50:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Añorgako festetara jende asko joaten zen Antiguatik. Tranbia zebilen. Auzoko jaiak nolakoak ziren. Inpernua. Hernanira joaten ziren oinez, dantzara, eta handik Portura. Gero, kantari etxera. Guardia Zibilak nola geratu zituzten.

19. Aitari errespetua zioten

- **Erref:** DON-097/037
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:51:19. **Bukatu:** 00:53:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Sagardotegiak. Ez zen asko joaten. Antiguatik etxera etorri eta lanera, ilundu arte. Aitari errespetua zioten. Igandetan sagardotegira joaten ziren, aitarekin.

20. Oilasko jokoa, Añorgako festetan

- **Erref:** DON-097/041
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:58:02. **Bukatu:** 01:00:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Santa Ageda eta Gabon eskerik ez du gogoan, baina oilasko biltzea bai. Oilaskoa sartu lurrean, eta burua moztea. Bera ez zen oilasko biltzaile ibiltzen. Festetan lana egin behar izaten zuen, oholtzak muntatzen. Afaria ematen zuen lantegiak frontoian, eta laguntzen ibiltzen ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com